Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Arantzazu Oregi Goñi

Bergara, Gipuzkoa (1963)



Aurkibidea

Biografia



Bergarako Zubiartea etxean igaro zuen haurtzaroa. Ama Tolosakoa zuen: Miren Goñi (Perito Mercantil ikasitakoa, eta Etniker taldekoa). Aita Josu Oregi bergararra (negozio-gizona, euskaltzain urgazlea eta itzultzailea). Guraso biak euskaltzaleak eta euskararen alde asko egindakoak Bergaran. Baita aurreko belaunaldia ere: aitaren aldeko aitaita zinegotzi jeltzalea izan zen eta amama Emakume Abertzale Batzakoa, gerra aurreko ikastolaren bultzatzaileetako bat. Arantzazu Bergarako udal artxiboko langilea da. Familiako kontuak jasotzeko elkarrizketatu dugu, eta baita haren anaia ere, Eneko Oregi.

Zintak

BER-354

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2021-03-04
- **Iraupena**: 84 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Aitaren familia abertzalea, erbestera

- **Erref**: BER-354/004
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:05:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Aitona Bizente bergararra zen eta amama Urretxukoa. Plazan bizi ziren; erbestean zazpi urte egin zituzten, gerraren eraginez. Aitona EAJko zinegotzi izan zen eta amama Emakume Batzakoa.

2. Gerra aurreko Ariznoa ikastola eta Maria Txantxote irakaslea

- **Erref**: BER-354/005
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:05:02. **Bukatu**: 00:07:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Ariznoa eusko ikastola orain batzokia dagoen lekuan jarri zuten (gerra aurrean). Argazki batzuk aipatzen ditu. Maria Txantxote zen irakaslea; gerrarengatik, Belgikan egon zen umeekin. Bi urtez desterratuta egon zen eta lanik egin ezinda.

3. Gerratik ihesi, Donibaneraino

- **Erref**: BER-354/006
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:07:06. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra hasi eta hurrengo egunean, aitona-amamak eta haien seme-alabak herritik joan ziren. Elgetan, Mundakan, Zallan... ibili ziren. Amama, izeba eta lehengusina bat Habana barkuan joan ziren. Aitona eta aita hegazkinez joan ziren. Donibanen bizi izan ziren urte luzez.

4. Ama Iparraldera, osabari bisita egitera

- **Erref**: BER-354/007
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Donibanen zeudela, ez zeukaten lanerako baimenik. Gazteak dantzan aritzen ziren gehien bat. Amak osaba bat zeukan, Eusko Abertzale batzako zuzendaria, eta erbestean zegoen. Ama hiru aldiz joan zitzaion bisitan. Familia ezagun asko zeuden.

5. Bartzelonatik buelta, etxera

- **Erref**: BER-354/008
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:12:25. **Bukatu**: 00:13:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Aitona-amamak seme-alabak hartuta Bartzelonara joan ziren, bigarren mundu gerra hasi zenean; handik Urretxura.

6. Aita-amek elkar ezagutu zutenekoa

- **Erref**: BER-354/009
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:13:37. **Bukatu**: 00:14:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aita-amek elkar ezagutu zutenekoa kontatzen du. Berehala ezkondu ziren.

7. Radio Paris eta aldizkariak ezkutuan

- **Erref**: BER-354/010
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:14:41. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Etxean Paris irratia entzuten zuten, isil-isilik. Aldizkariak jasotzen zituzten. Dena ezkutuan izaten zen. Ama iparraldera sarri joaten zen. Aitak euskaraz argitaratzen zen guztia erosten zuen.

8. Ikastolan egin zituen lehen urteak

- **Erref**: BER-354/011
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:18:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Anaia eta biak Bidekurutzetako ikastolan ibili ziren. Haur hezkuntzatik lehenengo mailara pasatzeko, ate berde bat igaro behar zen. Han Lide eta Maria Biktoria andereñoak egoten ziren. Bigarren maila akademian egin zuen eta hirugarrenetik aurrera Seminarixoan.

9. Ikastolan, hasieran, gaztelerazko klaseak

- **Erref**: BER-354/012

- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:18:58. **Bukatu**: 00:23:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
60. hamarkadan sortutako ikastola Santa Infancia zela kontatzen du. Lehenengo mailatik aurrerako paperak Jose Amilibiak sinatzen zituen; ez zekien euskaraz. Lehenengo mailatik aurrera dena gazteleraz ikasten zutela kontatzen du. Euskaraz ikasgai bat izaten zuten. Ikastolako lehenengo ikasleak bera baino bi urte zaharragoak ziren. Gazteagoekin hasi ziren euskaraz.

10. Ikastola Seminarixora

- **Erref**: BER-354/013
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:23:31. **Bukatu**: 00:25:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Koldo Eleizalde haurreskolan ibili zirenak bera baino gazteagoak zirela dio. Seminarixora joan zirenean, haurreskola biak batu ziren. Andereño Kontxitari buruzkoak kontatzen ditu.

11. Ikastola Seminarixora, dominikoen mesedetan

- **Erref**: BER-354/014
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:25:46. **Bukatu**: 00:27:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
"San Jose obrero" ikastetxea itxi zutenean, dominikoek han geratzeko ezinbesteko zuten eskola bat martxan egotea. Ikastolakoak horregatik hasi ziren han, bi aldeei komeni zitzaielako.

12. Eibartik ikastolara aholku eske

- **Erref**: BER-354/016
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:28:19. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolako Aranzadiko txostenak agertu zaizkio etxean. Eibartik aholku eske etorri zirenekoa kontatzen du.

13. Ikastolan, hasieran, familia gutxi

- **Erref**: BER-354/017
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:31:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Bere ondorengo belaunaldiak ikasle asko izan ziren ikastolan, baina beraiek eta aurrekoak oso gutxi ziren. Oso guraso gutxi ziren, beraz.

14. Beste ikastetxe batzuetako umeei euskaraz erakusten

- **Erref**: BER-354/018
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:31:11. **Bukatu**: 00:33:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Bere amak eta martxan jarri zuten beste ikastetxeetako umeak euskaldundu eta alfabetatzea. 1972 inguruan hasiko zirela uste du. Amak zerrendak egin zituen eta gorde egin ditu.

15. "Kili-kili" ariketa liburuxka euskaraz trebatzeko

- **Erref**: BER-354/019
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:33:41. **Bukatu**: 00:36:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
"Kili-kili" ariketa liburuxkak banatu egiten zituzten; bizkaieraz ziren. Sariketa bat ere egoten zen, eta irteera izaten zen saria.

16. Dotrina eta jaunartzea euskaraz

- **Erref**: BER-354/020
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:36:32. **Bukatu**: 00:39:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:
Dotrina Santamañan euskaraz ematen zuten. Euskarazko eta gaztelerazko jaunartzeak banatuta egiten zirela uste du. Bere ama Miren Goñi eta Pilare

Mujika katekista izan ziren. Pragako haurtxoaren kongregaziokoak izan ziren bere anai-arrebak. Kantaren zati bat abesten du.

17. Alfabetatze klaseak

- **Erref**: BER-354/021
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:39:26. **Bukatu**: 00:42:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Bere aita Josu Oregik eta Txomin Amasorrainek alfabetatze klaseak ematen zituzten. Roman Juaristi ere irakaslea zen. Astean bitan eta iluntzean ematen zituzten klaseak. Amenabar dendan eta Lonbiderenean ematen zen izena.

18. Irigoien patronatuaz

- **Erref**: BER-354/023
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:42:39. **Bukatu**: 00:44:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:
Vascongada 1945ean sortu zuten eta haren babesera, beste elkarte batzuk sortu ziren, tartean Irigoien patronatua. Juntakideak izendatzen ditu. Euskaraz alfabetatzeko klaseak, hitzaldiak, aste kulturalak eta abar bultzatzen zituzten patronatutik.

19. Don Miguel Altunaz

- **Erref**: BER-354/024
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:44:54. **Bukatu**: 00:48:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Don Miguel Altuna Andoaingoa zen. Bere amak Andoaindik ezagutzen zuen eta aitak, klaseak ematen zituenez maisutza eskolan, handik ezagutzen zuen. Gerra sortu zenean, apaiztegian zegoen eta ondoren desterruan egon zen Don Miguel. Elementala eta maisutza eskola izan ziren bere proiektu nagusiak. Elementalean batzarrak egiten zituzten, Manolo atezainak atea irekita.

20. Aita-amak, euskaltzaleak eta abertzaleak

- **Erref**: BER-354/025
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:48:03. **Bukatu**: 00:51:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Elementalean eskolak eman zituen bere aitak, Miguel Altunak eskatuta. Aitak klaseak euskaraz ematen zituela kontatzen du. Aita eta ama oso militanteak zirela dio. Abertzaleak eta euskal kultura eta hizkuntza bultzatzearen aldekoak zirela kontatzen du.

21. "Bergarako Kultur Ekintza"

- **Erref**: BER-354/026
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:51:14. **Bukatu**: 00:54:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:
Hezkuntza eta osasuna gai garrantzitsuak ziren 70eko hamarkadan. "Bergarako Kultur Ekintza" sortu zuten kideak izendatzen ditu. Lan asko egin zutela kontatzen du: anbulantzia lortu, San Miguel patronatua jarri zuten Down sindromedunentzat, institutua lortu, jangelak, eskolarako autobusak... Kultur arloan ere gauza asko jarri zituzten martxan: eskulanak, antzerki saioak, aisialdia, San Martinetako azoka...

22. Oihal eta jantzi erakusketa

- **Erref**: BER-354/033
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 01:01:47. **Bukatu**: 01:03:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Oihal eta jantzi erakusketa antolatu zuen Miren Goñik, bere amak. Elosuko etnografiako lana egin zuen eta konturatu zen aspaldiko oihalak gordeta zituztela baserrietan. Balioa eman nahi izan zien.

23. Miren Goñi, ama, etnografian murgilduta

- **Erref**: BER-354/034
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 01:03:47. **Bukatu**: 01:06:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura

Laburpena:
Amak, Miren Goñik, urteak egin zituen azterketa etnografikoak egiten. Aita lotsati samarra zen, baina ama oso irekia. Joxe Miel Barandiaranekin bazeukan amak harremana, baita haren iloba Pilarrekin ere. Etniker taldeko kide izan zen Miren eta Eusko Ikaskuntzako etnografia saileko lehendakari. Izeba Karmele Goñik Zeraingo azterketa etnografikoa egin zuen.

24. Kasetean grabatu, transkribatu eta argazkiak egin

- **Erref**: BER-354/035
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 01:06:39. **Bukatu**: 01:07:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:
Amak kasetean grabatzen zituen elkarrizketak eta ondoren transkribatu. Argazki asko ateratzen zituen.

25. "Euskaldunen herria" dokumentalaz

- **Erref**: BER-354/038
- **Iraupena**: 0:05:29. **Hasi**: 01:09:07. **Bukatu**: 01:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Suediako telebistarako dokumentalak egiten ari zirenean, Bergarara etorri ziren eta bere aitak, Josu Oregik, egin zien harrera. Bergaran zer grabatu zuten kontatzen du. "Euskaldunen herria" zeukan izena dokumentalak.

26. Aita ipuin lehiaketetan epaimahaian

- **Erref**: BER-354/042
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:19:00. **Bukatu**: 01:20:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Aita ipuin-lehiaketa bateko epaimahaian egon zen. Coca-colak ere antolatzen zuen sariketa bat, eta euskarazko edizioetan aitak epai-mahaian parte hartzen zuen.

27. Aita eta Simon Arrieta

- **Erref**: BER-354/043
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 01:20:25. **Bukatu**: 01:21:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Aitak Simon Arrietarekin harreman handia zeukan. Simon Arrietaren lehenengo erakusketa Elementalean egin zuen eta orduko argazki batean aita agertzen dela kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com